


Xabier Etxaniz Rojok eleberrri luzeari heldu dio «Waterloo-n galdutakoak» lanarekin. Hizkuntza eta gaixotasuna nahasten dituen kontaki-

zuna ondu du, AEKren bueltan eraikitako nobelari. Bakarne eta Mikel bikotea ditu protagonista, eta iktus bat tartekatuko zaie bidean.

Hizkuntza eta izana galtzea



Xabier Etxaniz Rojo, eleberrria eskuan. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

dea. Bakarnek bizitza berri bati ekin beharko dio eta gaixotasunaren eragina izango da kontakizunaren muin nagusia.

Hiru planotan osatu du eleberrria Etxaniz Rojok. Gaur egun bi protagonistek bizi duten egoera, batetik, iraganean bakoitzak bizitakoak bestetik, eta Mikelen koaderno azkenik, non berak gaixotasuna nola bizi duen agertzen baita.

AEK

Azken hogeita hiru urteetan AEK-ko irakasle da Etxaniz Rojo eta giro horren bueltan eraiki du bere eleberria. Euskararen afera, Korrika, euskaldun berriak... Eta istorioaren iturburua ere benetako gertakizun batean oinarritzen da, bere lagun baten lankidearen bikoteari gertatutakoa. Etxaniz Rojo pare bat aldiz elkarrizketatu zen berarekin eta bere logopedarekin ere harremana izan zuen iktusaren inguruko informazioa eskuratze aldera.

Idazleak ukatu egiten du medikuntzari buruzko liburu bat denik, berak afasiari –burmuinean gertatutako traumatismo

baten ondoren hizkuntza galtzea– heldu dio iktusaren ondorio nagusi gisa. «Hizkuntza galtzearekin batera izana ere galtzen du Bakarnek. Niri hori gertatuko balitzait pasatuko nintzateke Xabier izatetik Francisco Javier izatera, amak deitzen zidan bezala. Bakarneri gauza bera pasatzen zaio», aipatu zuen idazleak atzo.

Hartara, gerra eremu psikologiko batean kokatu du pertsonaia nagusia, baita Mikel bera ere. «Bakarnek uste du iktusak milioika neurona hil dizkiola eta jarri duela berea ez den gerra batean. Hortik ihes egin nahi du. Mikel ere galduta sentitzen da, iraganean bere ez zen gerra batean ere parte hartu baitzuen».

Etxaniz Rojo aitortu du bere eremu naturala ipuingintzarena dela, baina eraldaketarik ere nabari du bere idazkeran. «Lehen hamar bat ipuinetako bildumak idazten nituen, azkenaldian, agian laukoak soilik. Luzeagoa da idazten dudana», nabarmendu zuen bere burua «udako idazletzat» duen sortzaile trinxerpearrak.

Brotes culturales bipolares



Carlos Gil
Analista cultural

Estamos en las fechas de mayor programación cultural. Se debe aprovechar este fin de semana y el próximo, porque a partir de entonces todo serán villancicos, comidas de empresa y consumo disparatado. Los actos culturales por excelencia de nuestros tiempos. Todo debe medirse, pesarse y medirse y la ostentación forma parte del consumo. Amazon es uno de los signos más evidentes del Apocalipsis. Y viene en dron.

Por eso tenemos brotes de bipolaridad cultural exacerbada que nos colocan en la euforia y al instante en la depresión absoluta. Vemos salas de teatro llenas y otras con abstención de espectadores que provoca torticolis al intentar girar la cabeza trescientos sesenta grados para saber qué ha sucedido. Suenan músicas, se estrenan películas, se editan libros, pero al final lo que más se vende son los calendarios.

Uno de los virus más indetectable es el conformismo cultural. O pensar que los problemas de la cultura son los problemas laborales o de presupuesto de los gestores o los creadores de la cultura. La solución es una cuestión estructural, en ocasiones muy profunda, que debe involucrarse la sociedad entera. Tenemos nuevo consejero de Cultura. No esperamos mucho. Pero esperamos algo: inteligencia y liderazgo. Reajustes y políticas culturales para este siglo. Que no es poco.

Arlane KAMIO | DONOSTIA

Ipuingintzaren alorra maiz jorratu du Xabier Etxaniz Rojok (Trintxerpe, 1971) bere literatur ibilbidean. Hamasei urte pasatu dira bere lehenengo lana kalerratu zuenetik –“Begiak itxi eta kitto”–, bost ipuin bilduma orotara, eta orain eleberrirako jauzia

egin du “Waterloo-n galdutakoak” (Erein) nobelarekin.

Bakarne eta Mikel bikotea ditu protagonista. Lehenengoa euskaldun berria da, valentziarra, nerabezaroan Euskal Herri-ratua. Bigarrena, AEKn Bakarneren irakasle izandakoa, eta era berean haren bikotea. Iktus baten beraien bidea lastuko du, or-

AK | DONOSTIA

Miren Amurizak eta Alaine Agirrek bilduma ilustratu bana osatu dute Maite Gurrutzaga eta Irati Eguren marrazkilariekin batera, “Bainera bete itsaso” eta “Martin”, hurrenez hurren, Elkar argitaletxearekin biak.

Amurizak eta Egurennek antsietatea dute aztergai sinbolismoz betetako kontakizunean. Mara izeneko haurrak itolarria sentituko du ingurutik datozkion agindu eta betebeharratik eta baineraren hondoan aurkituko du bere babeslekua. Lan horren sorkuntzak badu bere istorio propioa. Amurizak berak Durangoko liburu denda batean salgai zeuden marrazkiak ikusi eta haietako bat erosi zuen. Bigarrenaren bila joan zenerako salduak ziren guztiak. Jakin zuen Irati Eguren zegoela haien atzean eta berari eskatu zion zuzenean. Honek oparitu, eta bertsolariak, bueltan, irudiekien bat zetozen bertso sorta bat. Handik hasi zuten biak “Bainera bete

Antsietatea eta enpatia bilduma ilustratu banatan, ez soilik irakurle gazteenentzat



Lau egileak, atzo, Donostian. Gorika RUBIO | ARGAZKI PRESS

itsaso” bildumarako bidea. Bigarren lanak, Alaine Agirrek eta Maite Gurrutzagak onduta, Martin du protagonista. Mutiko berezia da, autismoa du, eta bere lagun minaren ahotik osatzen da istorioa, empatia eta samurtasuna bilatzen dituen narrazio laburrean.

Bilduma ilustratuak haur literaturarekin erlazionatu izan badira ere, Elkarreko editore Antxiñe Mendizabalek esparrua apur bat zabaldu nahi izan zuen atzo Donostian egindako aurkezpen bateratuan. Juan Cruz Igerabidek “Hegats” aldizkarian esandakoa ekarri zuen gogora: «Haur literatura batzuetan helduek ere uler dezaketen literatura da». Gai unibertsalez hitz egin ohi duten lanak direnez publiko orokorrari zabaltzeko nahia agertu zuen, beraz.